



## ESKAERA OSATZEKO GIDA

Ekintzaileei aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuak ematen dituzten  
profesionalak eta erakundeak homologatzea

# 2024

**ESKAERA OSATZEKO GIDA**

**ESKAERA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSEN LABURPENA**



## ESKAERA OSATZEKO GIDA

①

Eskatutako formularioak bete

②

Dokumentazioa hemen erregistratu:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>

## ① Eskabidean aurkeztu beharreko dokumentuak

Deskargatu dokumentuak:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailletza>

- ◆ Eskabide-Orria.
- ◆ Entitatearen ardurapeko adierazpena.
- ◆ Profesionalaren ardurapeko adierazpena. (\*)
- ◆ Entitatearen inprimakia.
- ◆ Profesionalaren inprimakia. (\*)
- ◆ Zerga betebeharretan egunean dagoela egiaztatzea.
- ◆ Gizarte Segurantzako edota entitate laguntzaileko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzea.
- ◆ Bestelako dokumentazioa:
  - 1- Enpleguaren, enpresaren eta ahalduzko ekonomikoaren eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gutxieneko prestakuntza egiaztatzea (25 ordu)
  - 2- Hala badagokio, C1 mailaren (edo baliokidea) euskara tituluaren kopia.

*(\*) Homologatu beharreko profesional bakoitzeko, ardurapeko adierazpena eta inprimakia bete beharko dira.*

## ② Erregistro elektronikoa

Dokumentazio guztia bete ondoren, **Erregistro elektronikoaren bidez bidaliko zaio** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentuari.

◆ [Erregistro elektronikoa](#)

Gaur egun, 5 dokumentu erantsi daude erregistro–idazpen bakoitzerako, gehienez ere 10 MB dituztenak, eta ezin dira guztira 25 MB baino gehiago izan.

– Informazio gehiago hemen:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/erregistro/nola-erregistratu>

Aurkeztu beharreko dokumentazioak aipatutako mugak gainditzen baditu, entitateak dokumentazioa ondoz ondoko hainbat erregistrotan bilduko du.

Orduan, gaiaren eremuan idatzi beharko duzu:

**GAIA: HOMOLOGAZIOA: entitatearen izena: Y/X**

Non "Y" erregistroak multzoaren barruan duen posizioa den eta "X" multzoaren erregistro kopurua.

Adibidez, bidalketa ondoz ondoko HIRU erregistroren bidez egin behar baduzu:

- Lehenengo erregistroan honako hau adieraziko da:  
**GAIA:** HOMOLOGAZIOA – Entitatearen izena: 1/3
- Bigarren erregistroan honako hau adieraziko da:  
**GAIA:** HOMOLOGAZIOA – Entitatearen izena: 2/3
- Hirugarren erregistroan honako hau adieraziko da:  
**GAIA:** HOMOLOGAZIOA – Entitatearen izena: 3/3

**Zalantzarik izanez gero edo eskaerari buruzko argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, zurieta bidali aurretik, helbide honetan:**

[sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)